



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO UDALAREN PRENTSA OHARRA 2021eko irailaren 22an.

2021 urtea ere ez da xamurra izaten ari, ilunpetik ateratzen hasi garela dirudien arren. Orain artekoak erakutsi digu trantsizioa patxadaz egitearen garrantzia zein handia den. Izan ere, atera berri diren argi printzek itsutzea eragin dezakete. Egindako bideak sortutako neke eta bizi-nahiak gehiegitan urrutiratu egiten gaituzte errealitatekin.

Bide luzearen puntu honetan datozkigu Zaldibiko jaiak ospatzeko datak. Udaletik, egoeraren inguruko hausnarketa egin eta konpartitu dugu herritar eta eragileekin, bi herri batzar jendetsutan gainera. Adostasun zabala izan du aurten ere herriko festak ospatzeko baldintzarik ez dagoenaren adierazpenak.

Birusa gure artean da, zientzialarien esanetan oraindik bere bilakaera zein izango den jakiteko goiz da. Bestetik, gutxinaka malgutzen ari badira ere, COVID-19aren ZABALPENA GELDIARAZTEKO INDARREAN DIREN ARAUEK, JAIK ANTOLATZEKO BALDINTZARIK EZ DUTE UZTEN eta beraz, EZ DAGO OHIKO FESTAK EGITEKO BALDINTZARIK.

Egoera ez da iazko berdina. Txertaketa kopuru altuak nolabaiteko babes ematen digula dirudi eta gizartearen nekea eta normaltasun egarria are handiagoa dugu aurten. Horren isla dugu ez-festen fenomenoak, uda honetan bereziki kezkarri bilakatu dena.

Guzti hau kontuan hartuz, eta inguruko herri eta auzoetan izan diren esperientzia eta gertaeretatik ikasiz, modu honetan helduko zaio gaiari:

Batetik, iaz bezala, iraila-urrian zehar garatuko den udazkeneko ekitaldi agenda osatuko da, festetarako diru partida horretara bideratuz, eta herritar eta eragileen elkarlanarekin.

Bestetik, ez-jaien fenomenoak elikatzea eta areagotzea saihesteko, urriaren 6tik 12ra ez dugu ekintzarik antolatuko, ezta antolatze baimenik emango ere. Salbuespen bakarra haurrentzat urriaren 6an antolatuko diren jarduerak izango dira, eskolan jai dutelako.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Horregatik guztiagatik, Zaldibiako Udalak ondorengo deia egiten du:

HERRITARREI:

- Dei zuzena egin nahi dizuegu urriaren 1-2-3 nahiz urriaren 8-9-10eko asteburuetan bereziki arduraz jokatzeko. Oraindik, osasun egoera ez dago ospakizun jendetsuetarako. Neurriei eusteko deia egiten dizuegu eta jende pilaketak ekiditeko, egin asmo diren *juntaizoak* aipaturiko datetatik kanpo kokatzea eskatzen dizuegu.
- Festen ordezkotza gisa antolatu den Udazkeneko ekitaldi programan parte hartzeko gonbitea egiten dizuegu, bizi behar dugulako eta kultur-kirol sektoreak ere bizi behar duelako.

KANPOTIK HERRIRA ETORTZEKO ASMOA DUTENEI:

- Zaldibian aurten ere ez da festarik ospatuko, beraz, festa egitera ez etortzeko deia egiten dizuegu.
- Herri txikia gara, eta bitarteko mugatuak ditugun arren, gure esku dauden prebentzio neurri guztiak jarriko ditugu beste herrietan izan diren *ez-festak* eta haren ondorioak ekiditeko.
- Horregatik, adibidez, garraio zerbitzu publikoaren joan etorria mugatuko da data horietan, aurrez jakinaraziko diren orduetan, eta herriko hainbat guneren erabilera ere eragotziko da. Era berean, Zaldibiako tabernariak, beraiek hala erabakita, urriaren 8an eta 9an gaueko 22:00etan itxiko dituzte beraien atak.

Gutako bakoitzaren konpromiso kolektiboak lagunduko digu ilunetik argirako bide hau behingoz benetakoa izan dadin, jokatu dezagun arduraz, zentzuz eta elkartasunez.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

UDAZKENEKO AGENDA:

Ekintza hauez gain beste hainbat ere lotuko dira hurrengo egunetan.



ZALDIBIAN



<p>IRAILAK 22 asteazkena 17:30ean KARREANEn</p> <p>MARIGORRI tailerra</p> <p>Zikloaren mintzaira gure egitea.</p>	<p>IRAILAK 26 igandea MENDI IRTEERA</p> <p>BARAIBAR ZALDIBIA</p> <p>GAILURRERANTZek antolatuta.</p>	<p>IRAILAK 22tik IRAILAK 27ra Eskolako aparkalekuan</p> <p>AUTO TXOKEAK</p>	<p>IRAILAK 29 asteazkena 15:30ean FUTBITOn</p> <p>BUBBLE BALLS</p> <p>Haur eta gaztetxoentzat</p> 
<p>IRAILAK 30 osteguna 18:00etan PLAZAn</p> <p>HARRERA eguna</p> <p>Azken urtean etorri direnekin ibilbidea.</p> 	<p>URRIAK 1 ostirala 19:00etan ANTZOKIAn</p> <p>ESNATU NAIZ kabareta</p> <p>SARRERA</p>	<p>URRIAK 2 larunbata 13:00etan HERRIGUNEAn</p> <p>Auto klasikoan pasaera neurtua</p> <p>San Sebastian Circuit Spirit antolatzailea</p>	<p>URRIAK 2 larunbata</p> <p>Zaldibiako 1. ARGAZKI RALLYA</p> <p>Kultura arlotik antolatuta</p>
<p>URRIAK 3 igandea 12:00etan PLAZAn</p> <p>TONBOLA kale antzerkia</p> <p>Kultura arlotik antolatuta</p>	<p>URRIAK 6 asteazkena 10:30etik aurrera</p> <p>TAILERRAK txatxilipurdi</p> <p>Haur eta gaztetxoentzat</p>	<p>URRIAK 14 osteguna 18:30ean RESTI frontoian</p> <p>KANTU KOLORE ikuskitzuna</p> 	<p>IRAILAK 22tik URRIAK 3ra</p> <p>TXURREROA hotzari aurre egiteko</p>

UDAZKENEKO AGENDA

<p>URRIAK 15 ostirala 16:30ean PLAZAn</p> <p>SORMEN tailerra</p> <p>ZAPIAK BAT taldeak antolatuta</p> 	<p>URRIAK 15 ostirala 18:30ean RESTI frontoian</p> <p>AMAK kontzertua</p> <p>SARRERA</p>	<p>URRIAK 16 larunbata 18:30ean RESTI frontoian</p> <p>UR dantza ikuskitzuna</p> <p>SARRERA</p> 				
<p>URRIAK 17 igandea 10:00etan Muertzako zelaian</p> <p>gaztetxoan SEGA SAIOA</p> <p>ALMINTZAK antolatuta</p> 	<p>URRIAK 17 igandea 18:00etan PLAZAn</p> <p>FRONTONA ikuskitzuna</p> <p>SARRERA</p>	<p>URRIAK 20 asteazkena 16:30ean Olaldeko parkean</p> <p>PONYak txikieneztat</p> <p>Haur eta gaztetxoentzat</p>	<p>URRIAK 22tik AZAROAK Tera</p> <p>Herri antzoki aurrean</p> <p>KARRUSELA txikieneztat</p> <p>Haur eta gaztetxoentzat</p>	<p>URRIAK 22 ostirala 14:00etan RESTI frontoian</p> <p>PILOTA partiduak</p> <p>GAZTELUPE elkarateak antolatuta</p>	<p>URRIAK 23 larunbata 14:00etan ZUBI BURUn</p> <p>IV. ZAPI JAZTEA bertso bazkaria</p> <p>ZAPIAK BAT elkarateak antolatuta</p>	<p>URRIAK 24 igandea 13:00etan ZUBI BURUn</p> <p>JUBILATU bazkaria</p> <p>BETI GAZTE elkarateak antolatuta</p> 



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

EROSKETA BONOA eta MODEJU PINTXOA BONOA

Bonoak 2021eko irailaren 24 eta 25ean jarriko dira eskuragarri Zaldibiako plazan. Banatzen ez direnak Udaletxean eskuratu ahalko dira amaitu arte.

EROSKETA BONOAK ZENBAKITAN

Zaldibiako Udalak herrian erosketak bultzatzeko 3. edizio bat abian jartzeko asmoa du. Pasa den urtean burututako 2 edizioetan Zaldibiako Udalak 12.000 euro jarri zituen eta horrekin 36.000 eurotako kontsumoa eragin zuen herrian.

3. edizio honetan beste 6.000 euro inbertituko ditu eta honekin urte ta erdian 54.000 euro herrian gastatzen direla bermatuko dugu.

Berrizkura bakarra aurtengoan bonoak 10 eurotakoak izan beharrean 5 eurotakoak izango direla, gainerakoan dena berdina izango da.

MONDEJU PINTXOAREN BONOAK

Aurten ere mondeju pintxoa bultzatu nahi dugu. Pasa den urtean arrakasta handiegirik izan ez bazuen ere, bultzata egiten jarraitu nahi dugu.

Kasu honetan herritarrak euro bat eta udalak bat eta erdi jarriko ditu. Horrela udalak 2.5 euro ordainduko dizkio mondeju pintxoaren bonoa ekartzen duen ostalariari.

BALDINTZA OROKORRAK

- 2021/09/20 egunetik hasita, lehen 30 egunetan 16 urtetik gorako zaldibitar bakoitzak 60€ko balioa duten bonoak, 40 euroko prezioan eskuratu ahalko ditu, bonoak agortu arte. Hau da, 5€ko 12 bono eskuratu ahal izango ditu bakoitzak gehienez.
- Lehen 30 egunak igarota, edozein herritarrak erosi ahalko ditu elkartasun bonoak, kopuru mugarik gabe eta agortu arte. Betiere 5€ko 6 bonoko sortaka (30€ko balioa duten bonoak, 20 euroko prezioan eskuratu ahalko ditu).
- Erosketa bonoak 2021eko abenduaren 31a baino lehen gastatu/erabili behar dira.
- 5€ko bonoaren balioa baino gutxiagoko ordainketak egitean, bonoa jaso behar duenaren esku egongo da itzulketa eskudirutan ematea edo bestelako produktu edo osagarritan osatzea. Erabiltzailearen esku egongo da jasotzailearen baldintza horiek onartzea edo ez onartzea.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

- Bonoak jaso dituzten zaldibiako “profesionalek”, edozein momentutan aurkeztu ahal izango dituzte bonoak Zaldibiako Udalean diru ordainketa jasotzeko. Hori egin ahal izateko nahikoa izango da Zaldibiako Udaleko eskaera orri bati trukatu nahi dituen bonok gehitzea. Bonoak aurkezteko azken eguna: 2022ko urtarrilaren 15a. Data horretatik aurrera erabili gabe edo jaso gabe geratu diren txartelak beren balioa galduko dute.

NON ERABILI DITZAKEZU EROSKETA BONO HAUEK

Zaldibiako Udalak ekimen honekin bat egiten duten zerbitzu emaile, lehengai ekoizle, komertzio eta ostalariekin ondorengo zerrenda osatu badu ere, aipatutako eremu hauetan aritu eta jarduera zaldibian errotuta duen edozeini aitortzen diogu bonu hauek trukatzeko eskubidea.

EKOIZLEAK: AZANZA mintegiak, IZAR BERRI-Garikoitz Nazabal, JOSEBA INSAUSTI artzaina, KATXIÑA artzaina, MARIA LUISA MENDIZABAL barazkigilea, MOZO artzaina.

KOMERTZIO eta OSTALARIAK: ALARPE zalditegia, ARRESE jatetxea, BEGO mertzeria, BEKO KARNIZERIE, BETI GAZTE taberna, EROSLE janari denda, FARMAZIA Aintzane Alberdi, GALAI ileapaindegia, ITXARO ileapaindegia, ILLATI taberna, JAIK mozorro denda, JOXEPANE herri ostatua, LAZKAO ETXE jatetxea-nekazalturismoa, MAE fruta denda, PAGOSA okindegia, TXARO-OGI BERRI okindegia, ZELAA hotela.

Zaldibian, 2021 irailaren 22an.